

## **4. Boletina**

2012ko UZTAILA

# **LAN OSASUN BOLETINA**

### **AURKIBIDEA:**

**1. OSALANEN UTZIKERIA AMIANTOKO SALAKETETAN**

**2. NOTIZI LABURRAK:**

- **FRANCE TELECOM JUSTIZIAREN AURREAN LANEKO JAZARPENAGATIK**
- **“BONUS”-A ESKATZEKO EPEEN LUZAPENA**
- **KUTSADURA PRECICAST-EN**

**3. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO UZTAILA**

## 4. Boletina

2012ko uztaila

### 1. OSALANEN UTZIKERIA AMIANTOKO SALAKETETAN

2012ko urte hasieratik Osalanen egitekoa gaixotasun profesionalen salaketen kasuan aldatu egin da, lana eta gaixotasunaren arteko harremana frogatzeko ikerketetan. Arazoa, batez ere, amiantoko kasuetan eman da.

Orduarte, langile gaixo batek edo bere familiak Osalanen aurrean laneko arriskuen eta gaixotasunaren arteko harremana frogatzen zuen ikerketaren ondoriozko txostena eskatzeko salaketa aurkeztean, Osalaneko teknikari batek beharrezkoak ziren jarduerak burutzen zituen, osasunean kalteak sor zitzakeen eragilerik balego gaixotzeko arriskua argi geratu zedin.

Beno ba, bapatean Bizkaian eta Araban zergatia jakin gabe irizpidea aldatu du Osalanek horren berri eman gabe, eta orain, nahiz eta ikerketa egiteko salaketa jarri, ez du ezer egiten.

Lehenengo kasuak ezagututa eta txosten horiek duten garrantzia eta ezinbestekotasunagatik, betez ere epaitegi unera heltzekotan, ELAtik Osalaneko arduradunei azalpenak eskatu genizkien. Hasieran, langile gaixoaren lan harremanaren ezaugarriaren arabera irizpideak jarraitzen zirela argudiatu ziguten, hau da, langilea modu aktiboan egotea ezinbestekoa zela. Beraz, jubilatuta eta gaixo edo alargunen kasuan, ez zegoen ikerketarik, salbu eta gizarte segurantzak eskatuta ez bazen.

Irizpidea guztiz murriztailea eta kaltegarria zela ulertuta, 2012ko martxoan Osalaneko Zuzendariari gutun bat bidali genion gure haserrea eta ardura jakinaraziz eta egoera lehenbailen argitu eta erabaki gabe zeuden salaketa guztiei irtenbidea ematea eskatuz, eskatzailea edo salatzzailea nor zen kontutan hartu gabe.

Apirilean Osalaneko teknikarien zuzendari ordeak sinatutako erantzunaren arabera, Gizarte Segurantzari bidaltzen dizkiete eskaera guztiak, beraiek egin beharreko lana dela ulertzen dutelako, aurretik erabiltzen zen irizpideari kasu egin gabe.

Orain gutxi ezagutu dugu, prestazioa existitzen den kasuetan, Osalanek Gizarte Segurantzari bidaltzen dizkiola idatziak, baina eta horrela ez denean? Eta prestaziorik ez dagoenean? Beraz, ikerketa bakarrik egiten da, gaixoak berak salatzen duenean eta Gizarte Segurantzaren aurrean. Eta gainontzeko kasuetan? Zertarako dago Osalan orduan?

Horrela argi dago behin eta berriz salatu dugun ezbehar profesionalen susmoen sistemaren eraginkortasun eza. Laneko gaixotasunen egoera hobetzeko ezer ez dela egiten argi dago, ez dezatela aurkakoa esan. Zertarako orduan amianto funtsa? Propaganda, eta propaganda! Kaltetuei laguntzeko beharrezkoa den guztia egiten dela esan eta errealitatean babesik gabe uzten dituzte, jarrera lotsagarria eta konponbiderik gabeko ondorioekin.

ASVIAMIEK ere (Euskadiko Amiantoaren Biktimen elkarteak), oraindik konpondu gabe dagoen egoera hau salatu egin du.

## **2. NOTIZI LABURRAK:**

### ***France Telecom justiziaren aurrean laneko jazarpengatik***

France Telecom-en langileen artean 2008ko martxoan jadanik lehenengo buru-hiltzeak eman baziren ere, 2009ko irailarte ez zen alarma oihua eman. France Telecom enpresako 23 langilek, urte eta erdian bere buruaz beste egin zuten.

Bi urte eta erdi pasa ondoren, eta 44 kasu izanik, Pariseko Fiskaltzak, SUD sindikatuak jarritako salaketari kasu eginez eta Lan Ikuskaritzaren ikerketaren ondoriozko txostenaren gogortasunari esker, ikerketa sakon bat martxan jarri du. Nahiz eta oraindik ez jakin lana noren aurka bideratu, hiru zuzendari ohien izenak entzun dira.

Ikuskaritzak egindako txostena argia da: bapateko lanpostu aldaketak, pribatizazioaren ondoriozko berrantolaketak (2006tik martxan jarritako antolaketa eta gestio planak 22.000 langile kanpoan utzi eta 6.000 kontratatu berri lortu nahi zituen), langileen mugikortasunak eta

funtzionarioak kanporatzeak, ondorio latzak eta erantzule zuzenak izan ditu. Erantzukizuna gainera handiagoa da enpresako zuzendaritzak pertsonalaren osasuna kaltetzen ari zela bazekielako.

SUD sindikatuarentzat Fiskaltzak ikerketa zabaldu izana irabazi bat da dagoeneko, auzitegietan bukatu dezakeen eta ikuskaritzak baieztatutako jazarpen kolektiboko lehenengo kasua baita.

### ***“Bonus”-a eskatzeko epeen luzapena***

Martxoaren 31ko, 404/2010 errege-dekretuaren arabera, lan ezbeharrak eta istripuak gutxitzeko eta saihesteko lagundu duten enpresei zuzendutako kotizazio murrizketen sistema arautzen duena, 7. artikuluan, bai enpresek mutuen aurrean eskaerak zuzentzeko zein hauek Gizarte segurantzaren Zuzendaritza Orokorrean proposamen txostenak aurkezteko dituzten epemugak 2011ko ekitaldirako luzatu egin dira, ekainaren 30erarte eta abuztuaren 15erarte urrunez urren.

EAOan publikatutako artikulua bakar baten bitartez neurriaren zergatia argudiatzen da, “aurkeztutako eskaera guztien gestio lanak eraginda eta beharrezkotzat hartuta dokumentazioaren bilketa eta horien ondorengo egiaztapenagatik”.

Gogoratzearen esan, Bonus-a eskatzeko betebeharren artean prebentzio delegatuen adostasun txostenaren aurkeztea eskatzen dela. Aldezko txostena egingo da, argi dagoenean eta frogatu daitekeenean enpresak aurkezten duen dokumentazioan martxan jarritako neurri guztiak egia direnean. Horrela ez bada, ELAko ordezkariak ez dute Bonus-aren eskaera babestuko.

### ***Kutsadura Precicast-en***

Martxoaren bukaeran, Barakaldon dagoen PCB enpresako prebentzio delegatuek, lantegiko ur-iturri batetatik ura berde kolorearekin irtetzen zala ikusi zuten. Berehala, delegatuek iturria zizilatu zuten, uraren lagin batzuk hartu eta enpresa informatu zuten gertatutako istripuaren inguruan.

Instalazio teknikoaren arduradun batek, ondoko makina batetako likido batek ura kutsatu zuela azaldu zien. Minutu batzuk geroago, enpresak akats tekniko bat baino ez zela ziurtatu zuen eta ez lan istripua, delegatuek esaten zuten moduan. Jendearentzako arriskurik ez zegoela ozenki esan zuten. Iturri ondoan zeuden langile gehienek ur hori edaten zuten eta ez zekiten noiztik

zegoen kutsatuta. Produktuaren segurtasun fitxa begiratzuz, produktua kaltekorra zela egiaztatu zen eta arazoaren larritasuna ikusirik gaiaz hitzegiteko bilera bat eskatu zioten enpresari.

Bilera honetan, lantegiko medikuak arriskuren bat balego kasuak jadanik agertuta egongo zirela azaldu zuen, albo-ondorioak ahaztuta. Enpresak bere aldetik eta egoera ikertu barik izanda, lasaitasun mezuak baino ez zituen igortzen, arriskurik ez zegoela errepikatuz. Hori bai, delegatuei jasotako laginak beraiei emateko eskatu zieten, analisiak egiteko eta jendea informatzeko asmoz. Delegatuek, mesfidantzagatik ez zizkieten eman.

ELAko ordezkariak, gertaera hau lan istripu moduan sailkatzeko eta dagokion ikerketa egiteko eskatu diote enpresari. Era berean, azterketa medikoan prebentzio moduan gertaera hau kontutan izatea eskatu dute, orain arte kasurik agertu ez bada ere, aurrerago eman daitezkelako. Lan ikuskaritzan ere istripua salatu egin da gertatutakoa azaleratzeko eta erantzukizunak argitzeko. Lan ikuskaritzak enpresa irailan bisitatuko du.

### **3. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO URTARRILA - UZTAILA**

<b>HEH</b>	<b>LAN-ISTRIPUAK</b>
BIZKAIA	11
GIPUZKOA	10
ARABA	5
NAFARROA	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>29</b>

**\*Datuak uztailaren 24ra**